
NAFARROAN
**ELIKADURA-
BURUJABETZAREN**
ALDE EGITEKO
MANIFESTUA

Gure lurraldean, ekosistema-mota ugari daude, nekazaritza eta abeltzaintza iraunkorrak eta eskualde bakoitzari egokituak ahalbidetu dituztenak, ekoizleen ezagutzarekin eta landa-ingurunearekin batera. Emaizta kalitate eta ospe handiko elikagai nafarren ekoizpena izan da, eta jakiok, nagusiki, gure erkidegoan eta ingurukoetan merkaturatu izan dira.

Alabaina, azken hamarkadetan nagusitzen ari den nekazaritza-eredu industrialak lurra gehiegi usiatu, eta ekoizleak, herriak eta elikagaiak ekoizteko beharrezko baliabide naturalak suntsitzen ditu: lurra, ura, bioaniztasuna... bai hemen bai urruneko beste lurralde batzuetan, horrela gure etorkizuneko elikadura eta osasuna kolokan jarrita (gero eta pestizida gehiago erabiltzen edo gero eta hondakin gehiago sortzen direlako, beste faktore batzuen artean). Lehen, elikagaiak tokiko kontsumorako ekoizten ziren; orain, aldiz, merkatu globalizaturako salgaiak produzitzen dira. Adibidez, Nafarroako produktu tradizionalak urrunetik ekartzen dira, piperra edo zainzuria, kasurako, eta, aldi berean, esportazio-ehunekoa gero eta handiagoa da Nafarroako nekazaritza-ekoizpean.



Une honetan, non nekazaritza-ereduen, abeltzaintza intentsiboaren, estentsiboaren eta elikaduraren gaineko eztabaida handia dagoen, erakunde sinatzaileok uste dugu nekazaritzako elikagaien bestelako sistema bat eraikitzea posible eta premiazkoa dela, agroekologian, elikadura-burujabetzan eta ekonomia iraunkor, solidario, kooperatibo eta feministan oinarrituriko sistema, hala elkarriketaren eta dibertsitateen nola landa-mundu biziaren alde egingo duen jendartean.

Horretarako, ezinbestekoa da parte hartzeko eta erabakitzekeo egitura mistoak sortzea, tartean diren eragile guztiak (ekoizleak, kontsumitzaileak, administrazioak, elkarteak, gizarte-mugimenduak...) bilduko dituztenak, elkarrekin garatu beharreko nekazaritzako elikagaien estrategia lantzeko.

Beharrezkoa da gobernuek eta administrazio publikoek —bereziki Landa Garapeneko Departamentuak, baina baita udalek, mankomunitateek, tokiko ekintza-taldeek eta abarrek ere— tokiko nekazaritzaren aldeko apustua egitea, eskala txikian, eta agroekologiaren aldekoa, nazioarteko gero eta jarraibide gehiagorekin bat eginda, besteak beste Baserritik Mahairako Estrategia Europarrarekin, Bioaniztasunari buruzkoarekin edo 2030erako Garapen Iraunkorrerako Helburuekin.

Landa-garapenerako politikak trantsizio-prozesu hau barne hartu behar dute. Horretarako, eskura dauden baliabideak eta tresnak —Nekazaritza Politika Bateratua (NPB), Nafarroako Landa Garapenerako Programa (NLGP) eta beste lege-eta aurrekontu-esparru batzuk epe luzerako estrategia bati atxiki behar zaizkio, eremu guztietan (ekoizpena, araudia, prestakuntza, merkaturatzea, elikadura, etab.) birmoldaketa gauzatzen lagunduko duten berehalako ekintzak eginez. Izan ere, horrela bakarrik egin ahal izango dugu aurrera elikadura eta bizitza erdigunean jarriko dituen nekazaritzako elikagaien sistemarantz.

Ez gara hutsetik hasiko, ordea: Nafarroan, baditugu ikuspegi hau duten ekimen arrakastatsu ainitz, bai ekoizpenaren esparruan bai merkaturatzearen edo kontsumoaren arloan.

Gainera, COVID-19aren krisiak gogorarazi digu beharrezkoa dugula gure ekosistemen osasuna zaindu eta biztanleria osoa elikadura egokiaz bermatuko duen nekazaritzako elikagaien sistema.

Horregatik guztiagatik, ekiteko unea da, gure lurra, gure herriak, gure nekazaritza, gure elikadura eta, azken finean, gure etorkizuna horren mende baitaude.

ADMINISTRATIO PUBLIKO ARDURADUNEK HARTU BEHARREKO NEURRIAK

1. Ondasun komunak eta lurraldea

• LURRA

Helburua:

Nekazaritza-azalera babestea, lurzoru emankorraren higadura eta kutsadura gero eta handiagoa geldiaraztea, sektorean hasi eta/edo jarraitu nahi dutenei lurra eskuratzeko bidea erraztea, ekoizpen iraunkorra lehenetsita, bereziki agroekologikoa, eskala txikian eta hurbileko kontsumora bideratua.

Nola:

- Lur-bankuak sortuz; herri-lurretakoak, Nafarroako Gobernuarenak eta udalerrri eta/edo kontzejuenak, bai eta ekimen hauetan interesa duten lur pribatuak ere.

- Herri-lurren eta horiei loturiko azpiegituren (eskortak, bordak, etab.) erabilera eta esleipena arautuz, gizarte-irizpideak (emakumeak, gazteak, etab.) eta ingurumenarekin loturikoak oinarri, ekoizpen agroekologiko, iraunkor eta eskala txikikoa lehenetsita, ingurunea errespetatuko duten nekazaritza-jardunbideak bultzatuta, hala nola ongarrri kimikoak edo pestizidak ez erabiltzea. Zentzu honetan, NP Bren moduko laguntzak kobratzeko herri-lurren esleipena irizpide beren arabera egingo da, banaketa zuzena eta jardunean diren pertsonen lehentasuna bermatuta.

- Herri-lurren gobernantza parte-hartzailea sustatuz: tokiko komunitateak beren kudeaketan integratuko dituzten mekanismoak berreskuratuz eta/edo diseinatuz.

- Ingurunea errespetatzen duten nekazaritza-jardunbideen sustapena, hala lurzoruari eta haren osasunari eusteko nola haren higadura eta kutsadura geldiarazteko.

- Lurzorua hondatzen laguntzen duen erabilera zigortuz: gehiegizko laborantza, ongarritze kimikoak, abeltzaintza industrialetik eratorririko digestatxoak, pestiziden erabilera, etab.

- Nekazaritzarako bokazioa duten ondasunak eta lurrak babesteko erakunde publiko baten sorkuntza, Frantziako SAFER erakundearen antzekoa.

- Nekazaritza-lurra babesteko legezko irudi baten sorkuntza, laborantza-azaleraren desagertzea geldiarazi eta mehatxuetatik babes dezan, alegia, energia berriztagarrien makroproiektuetatik, proiektu estruktibistetatik (Mina Muga edo Erdiz, besteak beste) edo hiri-gintza-hazkundera dakartenetatik.

- Lurzoruaren ezaugarriak eta erabilera aztertuz, dibertsifikazioa eta tokiko elikadurara bideratutako erabilerak bultzatzeko.

• URA

Helburua:

Ur-eskaria eskura dauden baliabideekin orekatzea, gure arro hidrografikoen egungo mugak aintzat harturik eta klima-aldaketaren ondorioz baliabideak etorkizunean izango duen murrizketa aurreikusirik.

Nola:

- Aztarna hidriko txikiko nekarizita- eta abeltzaintza-ereduak babestuz eta sustatuz, hala nola lehorreko laborantza tradizionala edo abeltzaintza estentsiboa.

- Ez sustatuz, ezta diruz lagunduz ere, laborantza ureztatuaren hedapen irrazionala, eta ureztatze-ko makroazpiegitura berrien sorkuntzaren kostua nagusiki haien erabiltzaile edo onuradunen konaturakoa izanez.

- Ur asko kontsumitzen duten laboreak edo abeltzaintzak zergape-
tuz, artoa edo abeltzaintza in-
tentsiboa, esaterako.

- Nekazaritza intentsiboa eta abeltzaintza industriala mugatuz, azaleko eta lurpeko urak nitra-
toekin kutsatzeak dakarren arazo larriari aurre egiteko.

- Ureztatze tradizionala eta hari loturiko azpiegitura hidraulikoen mantentzea babestuz, ubide txi-
kiena, adibidez.

2. Ekoizpena

(nekarizita eta abeltzaintza)

• TRANTSIZIO AGROEKOLOGIKOA**Helburua:**

Nafarroan nekazaritzaren eta abeltzaintzaren desareagotzea sus-
tatzea, eskala txikiko eredu ba-
terako trantsizioa sustatuz, eredu
iraunkor eta dibertsifikaturakoa,
hain zuzen ere, lehentasunez to-
kiko merkaturatzera eta kontsumora
bideratua, kutsadura eta berote-
gi-efektuko gasen emisioak nabar-
men murriztuko dituen eta, aldi
berean, despopulazioa geldiaraziko
duena eta landa-munduari eutsiko
diona.

Nola:

- Legeak eredu intentsiboa eta estentsiboa bereizita eginez, be-
reziki estentsiboa babestuta.

- Nekazaritza Politika Bateratua-
ren (NPB) eta hurrengo Nafarroako
Landa Garapenerako Programaren
(LGIPP) helburu eta ekintzetan, bai
eta Eskualdeko Toki Garapenerako
Estrategietan ere, irizpide agro-
kologikoak txertatuz. Horretarako,
landa-garapenerako ildoetan, lur-
raldeari loturiko ekoizpen-proiektu
iraunkor dibertsifikatuei eta neka-
zaritzako elikagaien tokiko siste-
mei bereziki lagunduko zaie.

- Gizarte-irizpideak dituzten, es-
kala txikikoak diren eta tokiko
kontsumora bideratuta dauden nekaza-
ritza, abeltzaintza eta artzaintza-
rako laguntza, dirulaguntza publi-
koak eta desgrabazioak handituz,
proiektu agroekologiko, gizar-
te-ekonomiako eta solidarioetarako
laguntzak lehenetsita.

- Buruan emakumeak eta gaz-
teak dituzten eta/edo haien par-
te-hartzea duten proiektu agro-
kologikoei lagunduz, berariazko
finantzaketa-lerroak ezarririk.

- Ekoizpen jasanezinak zergape-
tuz, zigortuz eta/edo haietarako
laguntza publikoak kenduz.

- Nafarroako lurraldearen diag-
nosi agroekologiko integrala
eginez, biztanleriaren elikadu-
ra-beharrak asetzerako bideraturiko
ekoizpena dibertsifikatzeko auke-
rak aztertzeke.

• NEKAZARITZA

Helburua:

Lurraldeari egokituriko laboreen eta labore iraunkorren dibertsifikazioa sustatzea, nekazaritza-bioaniztasunari eutsirik, nekazaritza industrialala pixkanaka murriztuz, nekazaritza-lurra giza elikadurarako erabiltzeari lehenetasuna eman ez eta ez abeltzaintza intentsiboa eta beste erabilera industrial batzuk (nekazaritzako erregaia, kasu) elikatzeari.

Nola:

- Nekazaritza-lurra giza elikadurarako erabiltzea eta lurraldeari egokituriko labore iraunkorren dibertsifikazioa sustatuko dituzten araudia eta laguntza-deialdiak onartuz.
- Hemendik 2030era bitartean pestiziden, ongari kimikoen eta antibiotikoen erabilera pixkanaka murriztuz: antibiotikoak, %50 gutxiago; pestizidak (herbizidak, intsektizidak, fungizidak, etab.), %50 gutxiago; ongari kimikoak, %25 gutxiago.
- Hemendik 2030era bitartean ekologikorako bilakaera pixkanaka sustatuz, lurrraren %25era heldu arte, eskala txikiko ekoizpenak eta laboreak lehenetsita, lehenik eta behin tokiko merkaturatzeari bideratuak.
- Nekazaritza-bioaniztasuna eta berriz landatzeko ahalmena duten tokiko barietateak berreskuratzeke eta balioesteko premiazko neurriak ezarri.
- Nafarroa Transgenikorik Gabeko Eremu izendatuz.

• ABELTZAINITZA

Helburua:

Abeltzaintza industrialetik eredu estentsiborako trantsizioa bultzatzea, nagusiki lurraldeari loturiko eredu agroekologikorakoa.

Nola:

- Abeltzaintza industrialaren beharalako luzamendua ezarri: ez ustiategi berririk ez badaudenen hedapenik, eta hasitako espedienteak etenez.
- Ekoizpen intentsiboko abeltzaintza-azienda pixkanaka murriztuz, 2030ean egungoaren erdia izan dadin.
- Abeltzaintza-instalazioen taimainak eta ezaugarriak mugatuko dituzten udal-ordenantzak eta hirigintza-planak onartuz, horrela makroabeletxeen ugalketa geldiarazteko.
- Sektore guztietan abeletxe bakoitzeko animalia-kopurua nabarmen murriztu eta abeltzaintza agroekologikoa, estentsiboa, bultzatuko duen dekretu berria onartuz, hau da, azienda libreki bazka dadin ahalbidetuko duena (ahuntzaren eta txerriaren kasuan bereziki mugatua).
- Nafarroako herri-lurretan txerri-azienda estentsiboak dituen legezko trabak kenduz.
- Funtzio anitzeko beste erabilera batzuk, bereziki artzaintza, barne hartu eta ahalbidetuko dituzten mendi-esparruko nekazaritza, basogintza eta artzaintza antolatzeke eta kudeatzeko planak onartuz.

- Araudi- eta merkataritza-mailan abeltzaintza estentsibo iraunkorra eta industrial bereiziz, eta etiketatze argia ezarri, kontsumitzaileek jatorria eta ekoizpen-eredua zein diren jakin dezaten.

- Abeltzaintza intentsiboak, abeltzaintza estentsiboaren eta artzaintzaren aldean, landa-eremuan eta kliman dituen ondorio ekonomikoak, ingurumenekoak, gizartekoak eta demografikoak aztertuz.

3. Ekoizleak

Helburua:

Sektorean eskala txikiko ereduetan, askotariko eta iraunkorretan jarduten hastea erraztea eta bultzatzea, eredu agroekologikoak lehenetsita, ustiategi produktiboenak eta industrialenak desareagotzea eta lan-arloko legeria betetzen dela zaintzea.

Nola:

- Oztopo burokratikoak arinduz eta hala prestakuntza nola aholkularitza barne hartuko dituzten eta genero-ikuspegia txertaturik izango duten laguntza integralak ahalbidetuz.

- Lehen instalazioetarako laguntzak eskala txikiagoko eredura modulatu eta egokituz, NLU batean baino gutxiagoan jarduten hasteko gutxienekoa murrizturik eta bideragarritasuna frogatzeko epea luzaturik.

- Ekoizle-egilearen irudia aintzat hartuz, ez bere produktuak eraldatzen dituen pertsona industriatizat joz, zenbait sektoretan gertatzen den bezala, mahastizaintzan, kasurako.

- Ustiategi industrialenen desareagotzeari lagunduz eta hura bultzatuz.

- Emakume ekoizleei eta landa-eremukoei eragiten dieten arazoak ikusaraziz, hala nola lanaldi bikoitza.

- Laguntzak jaso ahal izateko soldatapekoen kontratazioan lan-arloko legeria bete dadila galdeginez (gizarte-baldintzak), bai eta nekazaritza eta abeltzaintzako hitzarmena aplikatu dadila, lan egindako orduak kontrola daitezela eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko legeria bete dadila ere, migratzaileen lan-eskubideak urratzen ez direla bereziki zaindurik.

4. Elaborazioa (transformazioa)

Helburua:

Bertako eta/edo tokiko produktuetan oinarrituriko elaborazioari eta transformazioari laguntzea, legeria artisau-ekoizpen txikietara egokituz, haien balio erantsia handitzeko.

Nola:

- Araudi higieniko-sanitarioa malgutuz, eskala txikiko ekoizpenetara egokitu ahal izateko.

- Eraldaketarako azpiegitura publikoak bermatuz, bereziki lantegi kolektiboak eta hiltegi txikiak.

- Mendian (Aralar, Urbasa, Sorogain...) gazta egin ahal izateko laguntzak emanez. Esate baterako, bordak berregituratzeko laguntzak.

- Bere produktuak egiten dituenari NLU baten eskakizuna murriztuz.

5. Banaketa / merkaturatzea

Helburua:

Merkaturatze-kanal laburrak bultzatzea, zuzeneko salmenta eta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremana sustatzea, eta gune handien ugalketa mugatzea, aldi berean tokiko merkataritza txikiarekin eta sukaldaritzarekin batera lan eginenez inguruneko baliabideei loturiko garapen iraunkorreko ekimen integralak sustatzeko.

Nola:

- Ekoizleen aldizkako azokak sustatuz, agroekologikoak, hirigunetik gertukoak eta agerikoak.
- Eskualde-mailako bilketa-guneak garatuz, Iruñeko banaketa deszentralizatzeko.
- Behar bezala ikusteko moduko jatorri-etiketatzea arautuz, alegia, ekoizpen-lekua eta osagai nagusiaren labore-mota garbi adieraziko dituen.
- Bermerako sistema parte-hartzailea (BSPH) sustatuz, irizpide agroekologiko eta sozialak oinarri.

6. Elikadura, kultura, berdintasuna eta gobernantza

Helburua:

Gure nekazaritzako elikagaien sistema oinarrian eta jomugan biztanleria egonik aintzat hartzea; horretarako, funtsezkoa da nekazaritzako elikagaien estrategien gainean

parte hartzeko eta erabakitzeko kanalak gaitzea, gardenki eta demokratikoki funtzionatuko dutenak, eta biztanleria osoarentzako elikagai osasungarri, iraunkor eta kulturalki egokien hornidura bermatuko dutenak. Aldi berean, garapen agroekologikorako hezkuntza eta prestakuntza katearen alor guztietan sustatuko dira, ekoizpenetik kontsumoraino. Proposamen guztiek genero-berdintasunaren esparruko politikak ekarri behar dituzte berekin.

Nola:

- Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kontseilua sortuz, katearen alor guztiak –ekoizleak eta kontsumitzaileak– bildu eta Foru Komunitateko nekazaritza- eta elikadura-politikak planifikatuko dituen.
- Eskualde-mailako Nekazaritzako Elikagaien Kontseiluak sortuz, lurraldearen araberako nekazaritzako elikagaien sistematarantz aurrera egiteko.
- 2030. Urterako Erosketa Publikoa ezarri, hura osatzeko irizpideen %50 parte-hartzaileak, ekologikoak, sozialak eta tokiko ekoizpenei, lehentasunez txikiei, loturikoak izanik.
- Gizarte-kontsumo eta elikagai-banku agroekologikoak sustatuz, eta tokiko produktu freskoen kontsumoa eta bankuak ere bai, baita kontsumo-taldeak ere.

- Ekoizpen-jardunbideei dagokienez, ezagutza agroekologikoa sustatuz, tokiko jakinduriak berreskuraturik.

- Interesa duten herritarrentzako autokontsumorako baratzeak eta hiri-baratzeak sustatuz, kolektibo behartsuenak bereziki aintzat harturik.
- Nafarroako nekazaritza-ekoizpe-naren produkzioari, merkaturatzeari eta kontsumoari buruzko azterlanak eginez, argitaratuz eta zabalduz.
- Ekoizpenari, elikadurari eta tokiko kultura gastronomikoari buruzko alderdiak barne hartuko dituzten eta ikuspegi agroekologikoa izango duten material didaktikoak sortuz, hala nola unitate didaktikoak, bai hezkuntza formalean bai ez-formalean.
- Eskola-curriculumetan elikadura-burujabetzari eta agroekologiari buruzko modulua sortuz, landa-eremuko eskoletara ere egokitua.
- Landa-eskolekin ingurune hurbileko tokiko ezagutza landuz, landa-autoestimua bultzatuz, lehen sektoreko lan-aukerak ezagutzera emanez, despulazioa eta lanaren sexu-bereizketa saihestuz, eta lehen sektoreko emakumeak ikusaraziz.
- Eskolek eta institutuek ingurune-ko nekazaritza-ekoizpen ekologikoak bisitatzea sustatuz, eta eskola-baratzeak bultzatuz.
- Agroekologiari buruzko prestatuntza emanez, migratzaileei eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen arreta berezia jarri-rik, autokontsumora edo nekazaritza-sektorean jardutera bideratua.
- Genero-ikuspegiari heldutako agroekologia eta elikadura-burujabetzaren nekazaritza, ingurumenari eta landa-eremuari buruzko azterlan formaletan txertatuz (unibertsitateak, nekazaritza-eskolak, etab.), bai eta administrazio publikoekin loturiko eta haiek finantzaturiko prestatuntza ere.
- Gizonezkoek zaintza-lanetan (sukaldea-erosketa-hazkuntza...) jardun dezaten sentibilizatuz eta sustatuz, genero-arrakala murrizteko.
- Nekazaritza-sektorean eta landa-eremuan Partaidetza-/Parekotasun-kuotak ezarri eta/edo sustatuz, oso bereziki nekazaritzako erakunde eta sindikatueta.
- Landa-eremuan Zerbitzu Publikoak ezarri, hala nola Haur-eskolak edo Eguneko Zentroak, kontziliazioa eta emakumeek bizitza politikoan parte hartu ahal izatea bultzatzeko.
- Landa-eremuko emakumeek elkarri ezagutza transmititzeko prestatuntza-guneen sorkuntza sustatuz.
- Patriarkatuari aurre egiteko sentibilizatuz, elikadura-burujabetzaren eta guztion denaren alde, bizimodu ona aldarrikaturik.

Erakunde gisa (elkartea, udala, etab.) manifestua babestu nahi baduzu, sartu atxikitzeko formularioan eta informazio gehiago esteka hauetan:



FORMULARIOA



INFORMAZIO
GEHIAGO



Agiri hau sustatzen eta osatzen lagundu duten entitateak:

-
- Mugarik Gabe Nafarroa • ARREA • Mundubat • IPES •
 - Etxalde (Elikadura Burujabetzaren aldeko Baserritarren Mugimendua) •
 - Habelarte (Mendialdeko Baserritarren Elkartea) •
 - Belardi Ekoizleen Elkartea • Plazara Ekoizleen Elkartea •
 - NNPEK – Nekazaritza Ekologikoa •
 - Jateko Kontsumo Taldea • Erleak Kontsumo Taldea •
 - Suma con causa Auzolana • LAB • Ekologistak Martxan •
 - Ecologistas en Acción • Lantxurda Taldea
 - Heliando Taldea • Sustrai Erakuntza •
 - REAS Nafarroa (Ekonomia Alternatibo eta Elkartasunezko Sarea) •
 - NEBA (Nafarroako Elikadura Burujabetzaren Aldeko Asanblada) •
 - Piparrika – Herri Baratza •